

ZORIONDUN BARRIA:

*Maria Baouardy, karmeldarra:
Jesus Kurutzekoaren Maria
(1846 - 1878)*

Domingo Iturrate, Dimako semea, altaretara jaso ta ama-bostgarren egunean, 1983ko azillaren 13n, joan dan gizaldiko mojatxo bati emon eutson Aita Santuak omen bardiña: Maria (edo Miriam) Baouard moja karmeldarrari. Barrero bete zan domeka orretan Vaticanoko plaza ikusgarria alde guztietatik etorritako kristiñauz. Nondiko kristiñauak ez ete ziran an? Italiar eta erromarrak, esan bearrik ez. Moltzo anditan agertzen dira domekero Aita Santuaren aurrera. Urtea Urte Santua dala-ta, barriz, egunero doaz ango San Pedro eleizara, Ate Santua deritxonetik barrura sartuta, penitentzizko ikustaldia egiten.

Baiña, oraingoan beste talde batzuentzat da aurrerengo lekua. Israeldik, Jordaniatik, Siriatik etorritako kristiñauak, an dira euren jazkera aparteko ta nabarmenaz nondik etorriak dira argi esaten. Eurena dabe, euren errialdean jaio ta illa, Zoriondun Barria. Taldetxo bat Indiatik etorria da. Mangalorera aldatuta, an profese egindako mojatxoa izan zalako, eurena dalakotzat daukenari euren omenalditxoa egiteko asmoz etorri dira. Beste talde bat, neskameak, etxe-serbitzariak osatzen dabe. Neskatotan, ogei urte egiñ arte, neskame ibillia izan zan Miriam, eta euren artekotzat omendu gura dabe.

Aita Santuak aparteko eguna artu gura izan dau mojatxo onentzat. Aita Domingo Irukoiztarrak, esaterako, beste Zorion-